

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Zaintzen
errealitatea
ezagutzen**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeko telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Diagnostiko bat abiapuntutzat3

Ahots ugari bildu dituen azterlana4

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik, ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

Diagnostic bat abiapuntutzat



Zaintzei dagokionez, zer errealitate bizi du herriak? Galdera horren erantzuna jakin nahian, diagnosticoko kualitatibo bat egin du Azpeitiko Udalak, Matia institutuaren eta Zabalduz gizarte ekimeneko kooperatibaren laguntzarekin. Diagnosticoko horretan ateratako emaitzak herritarren aurrean aurkezteko asmoz, eta elkarrekin hausnarketa bat egiteko

asmoz, topaketa ireki bat antolatu du udalak irailaren 30erako. Azoka Plazako aretoan izango da, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu parte hartzera.

Udalak apirilean aurkeztu zuen adinekoen zaintza eredua eraldatzeko prozesua, Zaintza Denontzat hartuta lelotzat, eta prozesu horren barruan, herriko egoera ezagutzea izan da lehen pausoa. Aurrera begira, zaintzak eman eta jasotzen dituzten eragile eta pertsona guztiak artikulatu nahi ditu, errealitatearen gaineko ikuspegi eta diagnosticoko elkarbanatu batetik abiatuz.

Zaintza Denontzat prozesuaren barruan, herriko egoera ezagutzea izan da lehen pausoa.



Ahots ugari bildu dituen azterlana

Nork zainduko nau ni? Nola nahiko nuke zaindua izatea? Non nahiko nuke bizi nire kabuz moldatzen ez naizenean? Nola moldatuko naiz nire ingurukoak zaintzeko? Herriko etxe askotan pil-pilean dauden galdera eta kezak dira, eta uneotan ez badira ere, izango dira noizbait; izan ere, denok gara elkarren mendeko, eta denok behar ditugu zaintzak gure bizitzako uneren batean.

Gaur egungo errealitate demografiko eta sozialek eraginda (biztanleriaren zahartzea, indibidualismorako joera, familia eredu berrien agerpenak...), gero

eta agerikoagoak dira zaintza beharrei erantzuteko dauden zailtasun eta mugak. Horren jakitun, Azpeitiko Udalak Azpeitia zaintzak erdigunean jarriko dituen herri bilakatzeko erronkari heldu dio.

Horretarako, ezinbestekotzat jo du zaintza sarea artikulatzea, hau da, zaintzak ematen eta jasotzen dituzten guztiak bilduko dituen sare bat osatzea, familiak ez direlako gai beraiek bakarrik zaintzaren pisu guztiari aurre egiteko, eta administrazio publikoak ere ez. Adibidez, kontuan hartu behar da hemendik denbora gutxira lau azpeitiarretatik batek 65 urtetik gora izango dituela.

DIAGNOSTIKOA, AMAITUTA

Udalak apirilaren hasieran aurkeztu zuen adinekoen zaintza eredua eraldatzeko prozesua, baita sortu berria zen Zaintza Mahaia ere. Orduan iragarri zuen herriko zaintza beharren eta errealtateen diagnostikoa egitea izango zela lehen pausoa, eta dagoeneko amaitu du diagnostiko hori. Honako hauek parte hartu dute: herriko norbanakoek; eragile publiko, pribatu eta komunitarioek; familiako zaintzaileek eta zaintzaile profesionalek; eta, noski, baita zaintzak jasotzen dituzten pertsonak ere. Zaintzekiko eta zaintzen antolaketarekiko dituzten iritziak, hausnarketak, proposamenak eta abar kontatu dituzte.

Matia institutuaren eta Zabalduz gizarte ekimeneko kooperatibaren laguntzarekin osatu du diagnostikoa udalak, hiru bide erabiliz. Alde batetik, herriko etxe guztietara galdetegiak bidali ziren (online betetzeko aukera ere eman zen), herritarren pertzepzioak jaso ahal izateko. Parte hartze zabala izan du, 233 pertsonak bete baitituzte galdetegiak. Parte hartu duten gehienak (%70) emakumeak izan dira, eta proposatutako galderak adin tarte

ugaritako jendeak erantzun dituen arren, 45 urtetik gorakoak izan dira erdiak baino gehiago.

Bestetik, talde elkarrizketak egin dira, eta hamasei eragiletako 47 pertsona elkarrizketatu dituzte. Asko dira zaintzaren inguruan zeresana duten eragileak, eta diagnostikoa ahalik eta osoena izateko, horiengana guztiengana iristeko ahalegina egin da. Hala, esfera publikoko (udal ordezkariak, Osasun sailekoak...),

**ZAINTZA
TOPAKETA**

Irailak 30, 17:00
Azoka Plazako
aretoan
(1. solairua)

Zaintzen
errelitatearen
gaineko
diagnostiko
kualitatiboaren
aurkezpena eta
gaiaz elkarrekin
hausnartzeko
aukera.

Izen-ematea:
943 15 71 92
<https://labur.eus/zb5nngba>





233 pertsonak bete dituzte etxeetara bidalitako galdetegiak; elkarrizketak ere egin dira diagnostikoa osatzeko.

Ahots ugari bildu dituen azterlana

pribatuko (baliabide prebentiboetan aritzen direnak...), komunitarioko (jubilatuen elkarteak, farmaziak, merkataritza...) eta familia esferako kideei egin zaizkie elkarrizketak. Azkenik, banakako bost elkarrizketa egin dituzte.

IRAILAREN 30AN, TOPAKETA IREKIAK

Zaintzaren eta zaintzen antolaketaren gaineko ikuspegi ugari jaso dira diagnostikoan. Adibidez, etxeetara bidalitako galdetegiak bete dituzten herritarren gehiengo zabalak (%93) argi du noizbait zaintza beharrak izango dituela; era berean, zaintza ekosistema baten beharra dagoela adierazi dute (%97). Egoera hori izan arren, gaur egungo politika publikoak, komunitatea eta familiak ez daudela zaintzei lotutako erronkei aurre egiteko prestatuta erantzun dute gehienek.

Taldeakako elkarrizketetan ere informazio ugari bildu da. Esate baterako, zaintza emozionalaren gabezia dagoela, zaintza prebentibora ez dela jotzen, burokrasia arindu behar litzatekeela, zaintzaren gaineko sentsibilizazioa sustatu behar dela eta abar aipatu dituzte elkarrizketatuek.

Diagnostikoan jasotako emaitzak herriratzeko, saio ireki bat antolatuko du udalak irailaren 30erako.

Ikerketaren emaitzak aurkeztu, ondorioak elkarrekin landu, eta hurrengo urratsak

Zaintza ekosistema baten beharra dagoela adierazi dute diagnostikoak parte hartu duten ia guztiek.

guztion artean adostea izango da helburua. Azoka Plazako aretoan egingo da topaketa, 17:00etatik 19:00etara. Ez da ezinbestekoa, baina joateko asmoa izanez gero, komeni da izena ematea, helbide honetan:



Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu parte hartzera.

Behin topaketa pasatzen denean ere, lanean jarraituko du Zaintza Mahaiak, aldiro-aldiro bilduz. Urtea amaitzerako, beste saio bat antolatu nahi da, interesgarriak izan daitezkeen zaintza arloko kanpoko esperientziak ezagutzeko.

Beste esperientzia interesgarri batzuk ezagutzeko topaketa egin nahi da urtea amaitzerako.



Hona hemen herritarrek erantzundako galdetegietatik ateratako emaitzetako batzuk.

%58

Zaintza beharrak dituen hurbileko pertsona bat dutela erantzun dutenen ehunekoa.

%56

Azpeitiko herritarrek ez dutela zaintzaren inguruko jarrera eta ardura aktibo nahikorik erantzun dutenen ehunekoa.

%69

Azpeitian zaintzak sustatzen dituzten auzo edo komunitate jarduerarik ez dutela ezagutzen erantzun dutenen ehunekoa.

%52

Familiakoa edo ingurukoa ez den pertsona bat zaintzeko ardurarik inoiz ez dutela hartu erantzun dutenen ehunekoa.



Energia Bulegoa

943 11 98 06

energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus